

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, gure enpresa aurrera eramateko jarduera ugari zehaztuko ditugu.

Hasteko, kizkurtze aurkako orraziaren ekoizpenerako beharrezko makineria eta lehengaiak dituzten enpresa espezializatuak kontratatuko ditugu. Beraiek gure orraziaren diseinua, fabrikazioaz eta spray-a ekoizteaz arduratuko direlako eta bi enpresa hauek JANEKE eta Nextmol dira.

Sare sozialen kudeaketa eta planifikazioa Noaren ardura izango dira. Noa trebea da sare sozialak erabiltzen eta edukiak antolatzen; beraz, berak eguneratuko ditu gure orraziaren informazioa eta publizitatea.

Informazioa zabaltzeko lagunduko digu, hortaz gain beste enpresek gurekin kolaborazteak erreztuko du.

Bestalde, Ane arduratuko da produktuen diseinuaz eta logotipoaz. Anek diseinua ikasi du eta sormena du bereizgarri, eta horri esker, gure produktua erakargarria eta berezia egingo du. Diseinuak garrantzi berezia izango du merkatuan identitate propioa sortzeko eta gainerakoekin bereizteko.

Harremanak edukitzeko orduan baliabide batzuk kontutan hartu behar dira eta baliabide hauek Karmelek ditu. Karmelek harremanen kudeaketa eta bezeroei arreta eskaintzeko ardura izango du. Bere pazientzia eta hizkuntza-gaitasunek bezeroekiko komunikazioa erraztuko luke, eta edozein arazo edo zalantza konponduko luke.

Bukatzeko, Arale matematikan bikaina da eta finantza baliabideen kudeaketan esperientzia handia du. Berak eginkizun hori modu arduratsuan eta zehatzean egingo du, aurrekontuak eta gastuak kontrolatuko ditu.